

# Durango-Gasteiz autobus lineari buruz

---

Behean sinatzen dugun herriotako udal ordezkariok honako hau adierazi nahi dugu Durango-Gasteiz autobus zerbitzuari buruz:

Urteak dira Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Legutiok gaur egun indarrean dagoen autobus zerbitzu hau nahikotzat jotzen ez dugula. Orduetgia zabaltzeko eta gutxienez, gure herrietatik orduro autobus bat igarotzeko eskaera egin izan dugu aurrerago ere. Gaurkoan, gure eskaera zilegia, arrazoizkoa, komenigarria eta areago beharrezkoa delakoan gaude. Hori dela eta, beste behin Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundira jotzen dugu egoera honek izan ditzakeen soluzio posibleak foru ordezkariekin partekatzeke asmoz.

## Autobus linea honek sortzen dituen mugikortasun arazoaren balorazioa

1. Mañariako herritarrek Durangon dituzte oinarrizko zerbitzuak. Gainera erosketak egiteko ere bertara jotzen dute. Urteak dira udal ordezkariak Bizkaibusa bertaratzeko aukera iragarri zutela, baina ez da halakorik gertatu. Autobusaren ordutegia nahikoa ez denez, mugikortasun arazo larriak gertatzen dira lau kilometrora baino ez dagoen hirigunera heltzeko. Autobus ordutegia ez nahikotzat jotzen da.
2. Izurtzaren egoera Mañariakoaren berdintsua da. Autobus ordutegia ez nahikotzat jotzen da.
3. Otxandio, Araba eta Bizkaiaren mugan dagoenez gero, bi aldeetarako joera du. Bigarren Hezkuntza zein Batxilergo ikasketak Durango eta Gasteizen egiten dituzte gazteek, eguneroko joan etorriak eginez. Gainera otxandioarrek Gasteizen dituzte oinarrizko zerbitzuak eta beraz joera handia dago Araba aldera. Autobus ordutegia ez nahikotzat jotzen da.
4. Legutiok, Arabako udalerrria izanik eta Gasteizetik 15 kilometro ingurura egonik, Gasteizerako joera handia du. Kasu honetan, Otxandion ez bezala, oinarrizko zerbitzu guztiak Gasteizen dituzte (osasuna, hezkuntza...). Autobus ordutegia ez nahikotzat jotzen da.
5. Gasteizen herrialdeko campus unibertsitarioa izanik, Durangaldetik zein Legutiotik, ikasle andanak egiten ditu eguneroko joan etorriak. Autobus ordutegia ez nahikotzat jotzen da.
6. Urkiolako parke naturalera jende asko hurbiltzen da astebururo. Askotan, kotxez joan beste aukerarik ez da izaten autobusaren ordutegia murrizta delako. Autobus ordutegia ez nahikotzat jotzen da.

## Bizkaiko Aldundiarekin 2011ko urriaren 3an egindako bilkuraren ondorioak

1. Bizkaiko Aldundiak jarrera baikorra azaldu du Otxandio, Mañaria eta Izurtzako udalerriek dituzten mugikortasun arazoek izan ditzaketen soluzio aukerak aztertzeke.
2. Autobus linea hau Arabako Aldundiaren kontsezioa dela azaldu du eta indarrean dirauen artean Bizkaibusak ezin duela bide hori egin.
3. Arabako Aldundiarekin harremanetan jartzeko borondatea azaldu du, autobus linea honek sortzen dituen mugikortasun arazoaren konponbidea bi Aldundiei dagokiela ulertzen baitu.

## Udalerrion proposamena

Soluzio bide desberdinak egon daitezkeela uste dugu. Udalerririk dugun informazioan oinarrituta eta Bizkaiko Aldundiarekin egindako bilkuran ondorioztatutakoan oinarrituta honako proposamen hau luzatzen dugu:

**Gaur egun indarrean dagoen kontsezioa zabaldu orduroko autobusa jarritz eta bi Aldundien arteko hitzarmen bidez kontsezioaren zabalpenak ekarriko lukeen gainkostua kofinantziatu.**

Garraio publikoaren garrantzia etengabe azpimarratzen da instituzioetatik. Halabaina, zerbitzu publikoa kalitatezkoa ez denean, edota ordutegiak oso murrizak direnean, kontrako efektua lortzen da nahigabe: jendeak ibilgailu pribatua erabiltzeko duen joera areagotu. Iraunkortasuna helburu duten politika publikoak beharrezkoak dira inoiz baino gehiago, eta horretan, administrazio publikoari erantzunkizunez jokatzeari dagokio.

Gure hitza kontutan hartuko delakoan, agur bero bat.

Mañaria

Izurtza

Otxandio

Legutio

Abadiño